

EAEN EMAKUMEEN
EKINTZAILETZA BULTZATZEKO
LAGUNTZEN MAPA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Lana

*emakumeen enpleguaren
sustapena*

*emakumeen
ekintzailetza*

*arriskeraren
soziala*

berdintasuna

*diskriminazioaren
kontraako borroka*

hazkundera

*desberdintasunari
murrizketak*

*bitartea
politikoa*

*erabakitzeko
eskubidea*



EAEn Emakumeen
Ekintzailletza Bultzatzeko
Laguntzen Mapa

Emakunde
Instituto Vasco de la Mujer
Vitoria-Gasteiz 2014

Izenburua: “EAEen emakumeen ekintzailletza bultzatzeko laguntzen mapa”
Argitaratzaile: Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.
Egilea: Abella Legal.
Diseinua: Igor Markaida.
Data: 2014ko iraila.
Deskribatzaileak: Emakumeen ekintzailletza, enplegua, aukera berdintasuna, laguntzak.

1	Aurkezpena.	6
2	Sarrera.	7
2.1	Emakumeen ekintzailletza.	7
3	Ekintzailletza-prozesua.	13
4	Gidaliburuan agertzen diren eragileak.	16
4.1	Eusko Jaurlaritzza.	16
4.2	Foru-aldundiak.	16
4.2.1	Arabako Foru Aldundia.	17
4.2.2	Bizkaiko Foru Aldundia.	17
4.2.3	Gipuzkoako Foru Aldundia.	18
4.3	Beste erakunde batzuk.	18
4.3.1	Merkataritza-ganberak.	18
4.3.2	Tokiko eta eskualdeko garapen-agentziak.	18
4.3.3	Estatuko erakundeak.	18
5	Ekintzaileari laguntzeko moduak.	21
5.1	Finantzaketa.	21
5.2	Laguntza.	21
5.3	Trebakuntza.	21
5.4	Kokapena eta espazio fisikoa.	21
6	Laguntzen zerrenda, erakundearen arabera.	23
6.1	Eusko Jaurlaritzza.	23
6.1.1	Ogasun eta Finantza Saila.	23
6.1.2	Lanbide.	25
6.1.3	SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.	28
6.2	Foru-aldundiak.	47
6.2.1	Arabako Foru Aldundia.	47
6.2.2	Bizkaiko Foru Aldundia.	55
6.2.3	Gipuzkoako Foru Aldundia.	80
6.3	Udalak.	87
6.3.1	Bilboko Udala.	87
6.3.2	Donostiako Udala: Donostia Sustapena.	89
6.3.3	Gasteizko Udala.	91
6.4	Estatuko erakundeak	98
6.4.1	Berrikuntzako Enpresa Nazionala (ENISA).	98
6.4.2	Kreditu Ofizialaren Institutua.	102
6.4.3	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala.	105
7	Eragileen zerrenda, lurraldearen arabera.	110
7.1	EAE/Estatua.	110
7.2	Araba.	111
7.3	Bizkaia.	112
7.4	Gipuzkoa.	114
8	Bibliografia.	118



1 Aurkezpena.



Emakumeek oraindik ere desabantaila eta bereizkeria handiak jasaten dituzte lanaren eta enpleguaren eremuan. Emakumeek eta gizonek ez dute berdin parte hartzen eremu ekonomiko, sozial eta politikoan, ezta ekintzaitzan ere, hor ere badirelako desberdintasunak, genero-rol eta -estereotipoei lotutako kultura-kontuen ondorioz sortuak, funtsean. Krisi ekonomikoaren ondorioz, gehitu egin dira premiak eraginda ekintzaile bihurtu direnak, baina kontuan hartu behar da arrazoi horregatik ekintzaile bihurtzen diren emakumeen ehunekoak gizonena halako bi dela; abiapuntuetan dagoen desberdintasunaren erakusgarri argia, dudarik gabe.

Kontuan izan behar dugu emakumeen ekintzaitzak, nahiz eta ahalegin handia eskatzen duen, aukera ekonomiko eta sozialak ere ekartzen dituela, bai ekiten dutenentzat, bai ekintzaileen ingurukoentzat; halaber, independentzia ekonomikoa lortzen, emakumeak ahalduntzen, ekoizpen-ehuna dibertsifikatzen eta berdintasuna sustatzen laguntzen du. Horiek horrela, beharrezkoa da kultura ekintzaile bat sor dadin sustatzea: emakumeak, emakumeen beharrak, eta ekiteko dituzten motibazioak eta baldintzak aintzat hartuko dituen; genero-rolak ezabatzen lan egingo duena, eta beste gidaritzak- eta lidergo-estilo batzuk eta enpresak antolatzeko eta kudeatzeko beste modu batzuk balioetsiko dituen.

"EAEn Emakumeen Ekintzaitza Bultzatzeko Laguntzen Mapa" lana -Emakundek argitaratua- enpresa-jarduera bat abiarazi nahi duten emakumeentzat da, eta, dauden laguntzei buruzko informazioa emanez, ekintzaileei laguntza eta aholku ematen dieten erakunde publiko eta pribatuentzat.

Nahi nuke gidaliburua baliagarri izatea aurrera egiten jarraitzeko, lan-merkatu, eta, ondorioz, gizarte zuzenago eta berdinzaleago bat lortzeko bidean.

Izaskun Landaida Larizgoitia

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

2 Sarrera.

Europa 2020 Estrategiak hazkunde adimentsua eta ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomiaren garapena ezartzen ditu bere lehentasunen artean. Eusko Jaurlaritzak, 2013-2016 aldirako Enplegua Suspertzeko Programan, lehentasunezko sei programa operatibo finkatu ditu, eta ekintzailtza da horietako bat; horrekin lotuta, ondoko gai hauek nabarmendu ditu, besteak beste: ekintzailtzaren kultura berreskuratzea, hezkuntza-sistemaren bidez sentsibilizazioa sustatzea, proiektu berritzaileei eta oinarri teknologikoa duten proiektuei babesa ematea, Euskal Ekintzailtza Sistema eraginkorra ezartzea, eta mikrokredituak sustatzea, ekintzaileek duten arazo nagusiari erantzuna emateko.

Ekintzailtza eta autoenplegua besteren konturako enpleguaren ordezkoko bide dira oraindik ere. Aukera horien bidez, pertsonak balioa sortzeko aukera bat identifikatzen du, produktu bat salduz edo zeinahi motatako zerbitzua eskainiz. Eskuratutako balioa sustatzailea ordaintzeko erabiliko da, baita jarduera garatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak ordaintzeko ere.

Ekintzailtza lanbidean –eta bizitzan– aurrera egiteko bide gogorra da, poztasunak ematen dituen, baina alde batera utzi ezin diren zailtasunak ere bai. Enpresa-jarduera gazte gehien-gehienek, aurreneko hilabete edo urteetan, ez dute jarduera egonkortzeko moduko indarra izaten; besteak beste, finantzaketarik ez dutelako, produktu eta zerbitzuak finkatu gabe dauzkatelako, finantza-muskulurik ez dutelako, eta lantaldeak gutxi dimentsionatutako daudelako.

2.1 Emakumeen ekintzailtza.

Emakumeek eta gizonek arlo ekonomikoan, sozialean eta politikoan duten partaidetza ezberdina da, eta ekintzailtzan ere ikus daitezke desberdintasun horiek; batez ere, genero-rolen eta estereotipoekin lotutako alderdi kulturalen eraginez.

a) Premiarekin lotutako ekintzailtza, aukerarekin lotutako ekintzailtzaren aurrean.

Enpresa-ekimen berriak bi arrazoi motarengatik jartzen dira abian:

1. **Aukera batek bultzatuta:** Jarduera-sektore edo -nitxo zehatz batean enpresa-negoziorako aukera antzematean sortutako motibazioa da.

Arrakasta izango duen jarduera hasteko eta diru-sarreraren iturri bihurtzeko **aukera** dagoela ikusten da.

2. **Premiak bultzatuta: Gogokoa ez den** egungo egoeratik irteteko, enpresa-jarduera edo autoenplegu-jarduera hastean datza. Une zehatz batean, beste lanbide-jarduerarik edo diru-iturririk ikusten ez delako ekiten da.

Ikerketa enpirikoek frogatzen dutenez, ezberdintasun handiak daude premiak bultzatuta eta aukerak bultzatuta ekiten duten pertsonen portzentajeen artean, kokapen geografikoaren edo gizarte-mailaren arabera. Premiak bultzatutako ekintzailtza-tasa askoz ere handiagoa da garapen-bidean dauden herrialdeetan, herrialde garatuetan baino, eta askoz handiagoa, halaber, hezkuntza-indize txikia duten pertsonengan, goi-hezkuntza duten pertsonengan baino.

Era berean, premiak bultzatutako euskal emakume ekintzaileen portzentajea handiagoa da gizonezkoena baino. Horrek esan nahi du emakumeek **gehiago ekiten dutela premiak behartuta, gizonek baino**. Global Entrepreneurship Monitor erakundeak EAerako egindako ikerketaren arabera, 2011n, ekintzailtza-prozesuan zeuden emakumeen % 40k premiak bultzatuta ekin zuen, eta gizonen % 18k. Horrek esan nahi du bost gizonetatik batek ekiten duela beharrak bultzatuta, eta emakumeei dagokienez, berriz, bost emakumetatik bik.

Sexu bietan, areagotu egin da premiak bultzatuta ekiten duten pertsonen kopurua; bereziki, euskal ekonomia jasaten ari den krisialdi sakon eta larriaren eraginez. Edonola ere, kontuan hartu beharra dago arrazoi horrengatik ekiten duten emakumeen portzentajea gizonen bikoitza dela; hori abiapuntuetan dagoen ezberdintasunaren seinale nabarmena da, eta erabaki hori hartzeko funtsezko eragilea, inguruko egoera ekonomikoa alde batera utzita.

b) Enpresak sortzeko trebetasunak.

Enpresa bat sotzen duten ekintzaileek konfiantza-maila handia izaten dute haien trebetasunetan; ekintzaileak ez diren pertsonak baino handiagoa. Autoestimu handia izaten dute beren lanbide-prestakuntza eta lanbide-trebetasunak baloratzeko orduan. Dena den, emaitzak ezberdinak dira inkestari erantzun dioten pertsonen sexuaren arabera: **Gizonek emakumeek baino konfiantza-maila handiagoa dute beren buruarengan, negozioak abian jartzeko**. Zehazki, emakume ekintzaileen % 85ek uste du beharrezko gaitasunak dituela, eta gizonen % 89k. Hori dela eta, emakumeen ekintzailtza bultzatzen eta laguntzen jarraitu beharra dago.

c) Ekintzaileen batez besteko adina.

Emakume ekintzaileen batez besteko adina gizona baino baxuagoa da. Enpresa bat sortzeko prozesuan parte hartzen duten emakumeek 37 urte dituzte batez beste, eta gizonek, berriz, 42 urte.

Alderdi horrek adieraz lezake emakumeek gizonek baino lanbide-esperientzia laburragoa dutela beren enpresa abian jartzeko unean (zehazki, 5 urte gutxiagokoa), eta, beraz, harreman-sare txikiagoa dutela, finantzaketa eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztela, jardueraren gaineko ezagutza txikiagoak, eta abar.

d) Ikasketa-maila.

Enpresa-abentura berri bat hasterako orduan, garrantzitsua da nahi diren jarduerak garatzeko behar besteko hezkuntza-maila eta ikasketa-maila izatea. Ekiteko, argitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna eta negoziatorako tresna egokiak behar dira. Ildo horretan, emakume ekintzaileek, batez beste, gizonek baino prestakuntza eta ikasketa-maila handiagoak dituzte. Aipatu beharra dago emakume ekintzaile unibertsitarioen ehunekoa handiagoa dela gizona baino (% 31 eta % 28, hurrenez hurren), eta, halaber, proportzioz gehiago direla bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeak gizonak baino, ikasketarik gabeko gizonen kopurua handiagoa baita. Emakume ekintzaileek, adinean duten aldea dela eta lanbide-esperientzia gutxiago izan arren, prestakuntza handiagoa daukate.

e) Porrotari beldurra.

Ekintzaileek, oro har, porrotari beldur gutxiago diote ekintzaileak ez direnek baino. Eta, bi kasuetan, emakumeek beldur handiagoa diote porrotari gizonek baino. GEM erakundeak 2013 EAEn egindako inkestan, emakumeen % 65ek porrotari beldurra diola adierazi du; gizonen artean, berriz, % 45 dira porrotari beldurra diotenak. Pertsona ekintzaileak aukeratzen badira, emakumeen eta gizonen arteko tartea txikitu egiten da, % 33 eta % 28 baitira, hurrenez hurren, porrotari beldurrik ez diotenak. Porrotari beldurra izatea, nolana ere, enpresa-proiektuak garatzeko alderdirik negatiboenetakoa da, oztopo psikologiko sendoak jartzen baititu jarduera bera hasi aurretik. 2012an zehar, adierazle horrek txarrera egin du; beharbada, aurreikuspen ekonomiko txarragatik eta merkatuaren jokabideari buruzko baikortasun ezagatik.

Beraz, emakumeen ekintzailetzak gizonenak baino egoera okerragoa duela ondoriozta daiteke, nahiz eta gaitasun berberak izan -edo hobeak, hezkuntzari dagokionez-; egoera horretan, bereziki alderdi psikosozialek dute eragina: rolak

eta estereotipoak esleitzea, familia zaintzen ardura handiagoa izatea, kreditua eskuratzeko zailtasun gehiago izatea, porrotari beldur handiagoa izatea, kristalezko sabaia, etab.

Emakumeen ekintzailetzak aukera ekonomiko eta sozial garrantzitsuak dakartza, bai ekintzailearentzat, bai bere inguruarentzat.

1. **Independentzia ekonomikoa:** Besteren konturako enpleguaren ordezkotako aukera bat da, diru-sarrerak lortzeko bidea ematen duena eta, beraz, baita independentzia izateko bidea ere.
2. **Ahalduntzea:** Ahalduntzeak lanbidearekin eta pertsonarekin lotutako alderdi batzuk garatzea eskatzen du (trebakuntza, autoestimua, erabakitze gaitasuna, inguruarekin negoziazioa, etab.). Garapen hori oso egoki eta erabilgarria da emakumeek beren bizitza profesional eta pertsonaleko agintea hartzeko gaitasunak indartu ditzaten.
3. **Ekoizpen-sarea dibertsifikatzea:** Emakumeek gizarte-esparruari lotutako sektoreetan ekiten dute batez ere; ibilbide luzeena izango duten sektoreak dira horiek, eta zutabe ekonomikoa ere izango dira. Gainera, emakumeak buru dituzten enpresek berrikuntza-maila handiagoa izaten dute.
4. **Berdintasuna sustatzea:** Generoaren rolak eta estereotipoak apurtzen saiatzeko, buruzagitzaren adibidetzat hartzeko moduko emakume gehiago behar ditugu.

Hortaz, emakumeak kontuan hartuko dituen kultura ekintzailea bultzatu behar dugu; emakumeen behar, motibazioak eta baldintzak aintzat hartuko dituen; genero-rolak ezabatze lan egingo duena, eta zuzentzeko eta buruzagitzarako beren moduari balioa emango diona.

Laburbilduz, enpresak sortzeko eta finkatzeko orduan berdintasunezko garapena lortzeko, funtsezkoa da berdintasunaren arloan indarrean dagoen legediak ezarritako aginduak benetan betetzea. Agindu horiek, beste gai batzuen artean, botere publikoek dituzten betebeharrei eragiten diete: emakume ekintzaile eta enpresarien kopurua gehitzeko; beren enpresa-proiektuen bideragarritasuna, lehiakortasuna eta nazioartekotzea areagotzeko; ordezkaritza gutxi duten sektoreetan beren ordezkaritza sustatzeko; eta enpresari bihurtzeko dituzten oztopoak kentzeko –gehienak ideia sozial eta kultural menderatzaileari eta gizonen zuzendaritza-moduaren lehentasunari lotutakoak–.

Horregatik guztiagatik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dauden laguntzei buruzko informazioa eskaintzeko asmoz argitaratu du gidaliburu hau, bai enpresa-jarduera bat abiarazi nahi duten emakumeentzat, bai ekintzailertzan pertsonak aholkatu eta laguntzen dituzten erakunde publiko eta pribatuentzat.

zioaken
bottoka

hazkundera

a
koa



3 Ekintzailletza-prozesua.

Pertsona batek edo talde batek enpresa-abentura berri bat abiarazteko igaroko duen prozesuak hainbat etapa edo garapen-maila ditu, eta horiek ondo identifikatzea komeni da, une bakoitzean prozesuaren zein zatitan gauden ulertzeko.

Kudeaketarako, finantzaketarako, trebakuntzarako edo azpiegituretan laguntzeko beharrak ezberdinak dira etapa bakoitzean, eta, horregatik, herri-administrazioek etapa bakoitzeko beharretara egokitutako laguntza-programak garatzen dituzte.

Laburki, ekintzailletza-prozesuak honako alderdi hauek biltzen ditu:

1. **Enpresa-kultura eta sentsibilizazioa:** Ekintzailletza-prozesuaren hasierako egoera da. Gizartean eta kulturean, ekintzailletza ez da besteren konturako enplegua bezainbat balioetsi, eta, ondorioz, hainbat aurreiritzi eta oztopo psikologiko izan ditu. Horregatik, funtsezkoa da lanbide-bizitzaren agintea hartzearen abantailen jakitun izatea eta ekimen berri batean hasteari beldurra kentzea. Azken urteotan, fase horrek duen garrantziaz konturatuta, kultura ekintzailea sustatzeko programak garatu dira unibertitate, enplegu-zentro, ikastetxe eta abarretan. Kultura ekintzailea bultzatu behar da, gorantz doan gizarte-balio gisa sustraitu, eta euskal gizartean bidezko balioa eman behar zaio; emakumeen artean, batez ere.
2. **Enpresa-ideia:** Pertsona ekintzaileak jarduera zehatz batean negozio-aukera identifikatzen duen unea da. Hasierako unea da; negozio-ideiaren, bezeroen, zerbitzuen, kokapenaren eta abarren hasierako zirriborroa sortzen denekoa. Fase horretan, oro har, enpresa-ideiak oso aberatsak izan ohi dira negozioaren ekarpen eta aukerei dagokienez, baina ez dute enpresa-ideiaren bideragarritasunari buruzko beharrezko azterketa zorrotzik izaten. Enpresa-ideiaren fasean, garrantzi handia du enpresa abiarazteko negozio-plana gauzatzeak; plan horretan, giza beharrak, behar ekonomikoak eta materialak, barne-funtzionamenduko protokoloak, bezeroen jokabidea, eta abar jasoko dira. Ikerketa horren sakontasuna hainbat faktoreren arabera izango da: enpresaren izaera, eskainiko dituen zerbitzuak, inbertsio-komplexutasuna, bezeroen jokabidea, hartutako arriskua, eta abar.
3. **Abiaraztea:** Enpresaren bideragarritasun-planean beharrezko doikuntza eta egiaztapenak egin ondoren, proiektua lehen pausoak ematen hasiko da

merkatuan: establezimendua, kokapena, lehenengo bezeroak, produktuen eta/edo zerbitzuen salmenta, lantaldearen trebakuntza, eta abar. Etapa horretan zehar, hasierako ideia aldatzen joango da, eta aldatetak malgutasun pixka batez egin ahal izango dira, enpresaren tamaina txikiak eta bizitasunak lagunduta. Enpresa-proiektuarekin lotuta, zalantza eta arrisku ugari sortuko dira, proiektuak merkatuan duen ibilbide faltagatik; horregatik, kanpoko eragileen aurrean, bereziki ahula izango da -baita moldagarriagoa ere-. Besteak beste, honelako zailtasunak izango ditu: finantzaketa falta, salmenta urriak, sektorean esperientzia gutxi duen taldea, eta lehia.

Hori guztia aintzat hartuta, laguntza publiko asko enpresaren etapa horretara bideratuta daude; hain zuzen ere, bidean laguntzeko, kokapena errazteko, laguntza finantzarioa eskuratzeko, eta abar. Izan ere, oinarriak finkatzeak garrantzi handia du, etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko.

4. **Hazkundera:** Enpresa batek, bere ibilbidean aurrera eginez, bideragarritasuna eta hazkundera lortzeko behar besteko merkatu-zatia irabazi duenean, litekeena da hedapena azkartzeko inbertsioa egin nahi izatea. Inbertsioa egiteko, hainbat era daude: bazkide kapitalista eta/edo estrategikoen bidez, arrisku-kapitalaren bidez, partaidetza-maileguak eskuratzen, etab.
5. **Finkatzea:** Proiektua heldutasunera iritsi den etapa honetan, enpresak, sendoagoa eta egonkorragoa izango bada ere, beste zailtasun batzuei egin beharko die aurre; hala nola nazioarteko lehiari, berrikuntzaren kudeaketari, enpresaren eta pertsona-taldearen administrazioari, epe luzeko iraunkortasunari, etab. Herri-administrazioek hainbat eta hainbat laguntza eskaintzen dituzte fase horretarako; hots, garapen teknologikorako, nazioartekotzerako eta enpresen oinordetza eta eskualdatzerako, besteak beste.

Gidaliburu honetan, horietako batzuk agertzen dira; adibidez, *Enpresa txiki eta ertainen ondorengotza*, lehendik dauden negozioen ardura hartzen duten emakumeek erabil dezaketena, edota +digital@, eratu berri diren enpresei zein finkatutako enpresei web-garapena eskaintzen diena.

Ez ditugu kontuan hartuko jada egonkortuta dauden eta merkatuan ibilbidea egina duten enpresekin lotutako beste laguntza eta eragile batzuk; adibidez, *Kanpo-ekarpenetarako Gauzatu programa* edo *Innobasque-ko enpresen azeleratzailea*.

desbet

MM



4 Gidaliburuan agertzen diren eragileak.

Euskadik egitura politiko-administratibo konplexua du, hainbat eskumen-mailatako administrazioek osatutakoa. Gainera, ekintzailtza sustatzeko berariazko programa gehien eta zabalenak dituen autonomia-erkidegoa izango da seguruenera; hain zuzen ere, ezagutzan oinarrituta bigarren eraldaketa ekonomiko trinkorantz burutzen ari den herri-estrategiaren emaitza gisa.

Batzuetan, helburu zehatz berdinerako laguntzak eskaintzen dituzte herri-administrazio ezberdinek, baina nabarmentzeko modukoa da, hala ere, jarduera koordinatuak eta eraginkorrak izateko eta bikoiztasunak saihesteko erakundeak egiten ari diren ahalegina.

4.1 Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritzak, aurrekontu orokorren bidez, enpresen ekintzailtza eta lehia sustatzeko programa batzuk antolatzen ditu, ekintzailtza-kultura sortzeko zein teknologia berriak hartu edo I+G+b jarduerak finantzatzeko. Eusko Jaurlaritzaren enpresa-politikak garatzen dituen agentzia, eta enpresentzako programak eta horiekiko harremanak kudeatzeaz arduratzen dena, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua da (SPRI); baltzu hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren mende dago.

Eusko Jaurlaritzak, SPRIren bidez, ekintzailtzarekin lotutako beste ekimen batzuetan ere parte hartzen du, zuzenean; adibidez, berrikuntzarako enpresazentroetan (CEI), edota lurzoru industrialak enpresa-jarduerarako sustatuz.

4.2 Foru-aldundiak.

Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiak oso eragile garrantzitsuak dira Euskadiko erakunde-sarean; beren politika publikoen garapenean oro har, eta ekintzailtzaren garapenean, zehazki. Foru-ogasunek zergak biltzen dituzte, eta euren gizarte-politikak, enpresa-sustapena, eta abar garatzeko aurrekontua dute.

Hiru foru-aldundiek enpresen sustapenerako atala edo zerbitzua dute, argitaratutako programa batzuekin, baina ibilbide eta eremu ezberdinekin.

4.2.1 Arabako Foru Aldundia.

Arabako Foru Aldundiak hainbat programa ditu enpresen sustapenerako; horien artean, trebakuntzan, berrikuntzan, finantzaketan eta inbertsioak erakartzen laguntzeko programak dira azpimarragarrienak. Araban, gainera, lurzoru industrialak eta industrialdeak sustatzeko garapen-agentziak hainbat programa eta laguntza sustatzen ditu (Innova Álava, adibidez), ekintzailtza eta enpresa berrien sorkuntza bultzatzeko.

4.2.2 Bizkaiko Foru Aldundia.

Bizkaiko Foru Aldundiak ibilbide luzea du enpresa-proiektuak sustatzeari dagokionez, hainbat programa eta zerbitzuren bidez. Enpresa-politikak kudeatzeaz arduratzen den saila Berrikuntza eta Ekonomiaren Sustapen Saila da.

Ekintzailtza-politiken sustatzaile eta katalizatzaile nagusia BEAZ da (Bizkaiko ekonomia garatzeko enpresa publikoa); enpresen lehiakortasuna hobetzeko jarduerak eta zerbitzuak sustatzeaz nahiz garatzeaz arduratzen da.

Bizkaiak BEAZera lankidetzeta-hitzarmenen bidez partaidetutako edo atxikitako enpresa-sehaskak ere baditu:

- **Biokabi:** Biozientzietan jarduten duten enpresen sehaska.
- **ZITEK mintegiak:** Ekintzailtza teknologikoa sustatzeko, balio erantsi handikoa, unibertsitario gazteei zuzendua.
- **DeustoKabi:** Deustuko Unibertsitateko oinarri teknologikodun enpresa-sehaska.
- **Tecnia T4 ekingunea sehaska:** Tecnia korporazioaren inguruan sortutako enpresa-proiektuen sehaska.

Bizkaiko Foru Aldundiak bost jarduera-ildo estrategikotan antolatzen ditu eskaintzen dituen laguntzak. Laguntza horietako batzuk zehazki ekintzaileei zuzenduta daude. Ildoak honako hauek dira:

1. Sortu ildoak
2. Lehiatu ildoak
3. Enplegatutako ildoak
4. Dinamizatu ildoak
5. Erakarri ildoak

Bizkaiak, halaber, Seed Capital agentzia du. Agentzia horrek hazteko gaitasuna duten enpresen kapitalizazioa eta inbertsiorako arrisku-kapitaleko funtsak kudeatzen ditu, abiaraztea errazteko.

4.2.3 Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gipuzkoan, Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentua arduratzen da ekintzailtzaz. Bereziki aipatzeko modukoa da Emekin ekimena, ibilbide luzea baitu egina. Emakumeen ekintzailtza bultzatzeko xedea duen zerbitzua da Emekin, Gipuzkoako Foru Aldundia, Aspegi (Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte) eta Euskadiko Kutxa dituen sustatzaile, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berak eta Europako Gizarte Funtzak finantzatzen dutena. Zerbitzuaren helburua emakume ekintzaileei enpresak abian jartzeko arreta eta laguntza pertsonalizatua eskaintzea da.

4.3 Beste erakunde batzuk.

4.3.1 Merkataritza-ganberak.

Merkataritza-ganberak zeregin nabarmena dute enpresa-jarduera sustatzeko orduan; batez ere, nazioartekotzean, enpresen sorreran eta enpresen arteko lankidetzan. Hiru euskal ganberak berariazko zerbitzu bat daukate lehendik dauden enpresen ekintzailtza eta lehiakortasuna laguntzeko, eta txikizkako merkataritzan nahiz tokiko negozioaren sektorean garatzen duten zeregina nabarmentzeko.

4.3.2 Tokiko eta eskualdeko garapen-agentziak.

Euskadin, toki-administrazio batzuek ekintzailtza eta autoenplegua laguntzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte. Garapenerako agentzia azpimarragarriak daude; adibidez, Donostia Sustapena, Bilbao Ekintza, Gasteizko enpresen garapenerako zerbitzua eta Barakaldoko Inguralde. Gainera, eskualdeko garapen-agentzien sarea ere badago, behar horiei erantzuteko eta ekintzaileari laguntza emateko, laneratzean eta enpresa-garapenean. Hortaz, zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta beste erakunde batzuetako laguntzak bideratzeko leihoak ere badira.

4.3.3 Estatuko erakundeak.

4.3.3.1 Berrikuntzako Enpresa Nazionalea (ENISA).

ENISA enpresa publiko bat da, Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren mende dagoena, Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Orokorraren bidez. 1982az geroztik, aktiboki hartzen du parte enpresa-proiektu bideragarri eta berritzaileen finantzaketan. Hainbat programa garatzen ditu, eta, horien artean, ekintzaileei eskainitakoa nabarmentzen da, enpresa-egitura sortu edo indartu ahal izateko jarduerak, zerbitzuak eta finantzaketa-ildoak garatuz.

4.3.3.2 Kreditu Ofizialaren Institutua (ICO).

Sortu berri diren enpresa eta proiektuentzako finantzaketa eskaintzen du. Ekitaldi honetan zehar, eta kredituak murrizteko joera finantzario orokortua kontuan hartuta, hainbat neurri hartu dira, enpresek, ICOren laguntzarekin, beharrezko finantzaketa eskuratzeko aukerak indartzeko. ICOren maileguak erakunde pribatuen bidez izapidetzen dira.

4.3.3.3 Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (INSS).

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak autoenplegua eta enpresa-sustapena bultzatzeko diru-laguntzak eta hobariak jasotzen ditu; batzuk, berariaz emakumeentzat, eta beste batzuk gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonentzat.

antropologi
sosial

berdiantara

desberdiantara
masyarakat

5 Ekintzaileari laguntzeko moduak.

Ekintzaileak laguntzeko lau modu daude, zerbitzuaren izaeraren arabera. Laguntza horietako bakoitzak modu ezberdinean eragiten du ekintzailtza-prozesuan zehar, eta osagarriak dira beraien artean. Agentzia publiko eta erakunde askok programak ezberdinak dituzte, lau eremuetan arreta osoa eskaini ahal izateko.

5.1 Finantzaketa.

Negozio berriak abiaraztean, inbertsioa pribatuaren osagarri diren laguntza ekonomikoen bidez, jarduera ekintzailea erraztean datza. Laguntzak, batez ere, itzultzekoak ez diren diru-laguntzak, inbertsiorako abalak edo maileguengatiko finantza-gastuen finantzaketak dira, besteak beste.

5.2 Laguntza.

Ekintzaileen behar handienetako bat –bereziki, ekintzailtzan esperientziarik ez dutenen kasuan– prozesuan zehar aholkuak eta laguntza emango dizkieten pertsonak izatea da, oztopo eta ahultasunak gainditzen laguntzeko. Beren esku dauzkate kudeaketan laguntzeko zerbitzuak, proiektuen tutorizazioa, enpresa-planaren bideragarritasuna ebaluatzea, etab. Zerbitzu horiek doakoak izan ohi dira, baina hainbat baldintza bete behar dira horretarako.

5.3 Trebakuntza.

Enpresa-gestioaren arloetan trebatzea funtsezkoa da ekimenak arrakasta lortzeko aukera gehiago izan ditzan. Hainbat gaitan trebatzeko ikastaroak eskaintzen dira: enpresaren administrazio-kudeaketa, marketina, merkatuko eskaeran dauden joera berriak, produktu eta zerbitzuen merkaturatzea, eta abar.

5.4 Kokapena eta espazio fisikoa.

Enpresa-jardueraren lehen hilabeteetan –negozio motaren arabera–, garrantzitsua da jarduera garatzeko kokapen egokia izatea. Aldundiek, tokiko eta eskualdeko garapen-agentziek, eta Eusko Jaurlaritzak enpresa gazteei aldi baterako ostatu emateko azpiegiturak eskaintzen dituzte; oro har, diruz lagunduak edota doakoak. Espazio horietan, enpresa-sehaska laguntza-zerbitzu batzuekin batera eskaini ohi da.

emakumeen erpleguaren
sustapena

en
etza

berdintasun

n
i

6 Laguntzen zerrenda, erakundearen arabera.¹

6.1 Eusko Jaurlaritza.

6.1.1 Ogasun eta Finantza Saila.

6.1.1.1 *Enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programa, 2014. urterako.*

Erakundea:	Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila.
Laguntza mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	Finantzaketa-ildo bat eratzea, finantzaketa lortzeko prozedura eta baldintzak arautuz. Bitarteko horren bidez bankuaren finantzaketa lortu ahal izango da, hark dituen zirkulatzaila-premiak betetzeko, epe laburreko zorra berritzeko eta epe laburreko zorra epe ertain eta luzerako zorra bezala egokitzeko.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	Enpresa txiki eta ertainak (ETE), eta banako enpresaburuak eta profesional autonomoak.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none"> • Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa txiki eta ertainak (ETE) izatea; baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte: <ol style="list-style-type: none"> 1. Jarduera ekonomikoren bat egitea. 2. 250 langile baino gutxiago edukitzea. 3. Haien urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez izatea, edo, bestela, urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez izatea. 4. Zuzenean edo zeharka, beste enpresa baten edo batzuen % 25eko edo gehiagoko partaidetza ez izatea, aurretik adierazitako baldintzaren bat bete gabe. • Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten banakako enpresaburu eta profesional autonomoak, baldin eta honako

¹ Laguntzen izena eta araudia argitaratu diren moduan utzi ditugu, haien bilaketa errazteko; horregatik, hizkuntzaren erabilera ez-inklusiboa duten erreferentziak aurki daitezke.

baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide berezian alta emanda izatea.
2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako ekonomia- edo lanbide-jardueren bidez etekinak lortzea.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	Finantzaketa-eragiketak finantzatu daitezke, baldin eta honako helburuak badituzte: kapital zirkulatzailaren likidezia- eta finantzaketa-premiei aurre egitea; epe laburrera zorra berritzea, eta epe laburrerako epea epe ertain eta luzekora moldatzea. Kapital arruntaren finantzaketa-beharrak aztertu ondoren, Elkarrekiko Berme Baltzuak bermearen helburu den mailegurako finantza-eragiketaren zenbatekoa eta epea zehaztuko ditu.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • Azterketa-komisioa: maileguaren zenbateko nagusiaren % 0,10, behin bakarrik, abala eskatzean. • Formalizatze-komisioa: formalizatutako abalaren % 0,20, behin bakarrik. • Abal-komisioa: urtean % 0,75. Aurretik aplikatuko zaio, urtarrilaren 1eko datarekin, abalatu den maileguaren urteko batez besteko saldoari. Formalizatzen den urtean eta behin betiko muga eguneratzen den urtean, urtea amaitu arte edo muga eguneratu arte benetan igaro den egun-kopuruarekiko proportzionala den moduan aplikatuko zaio batez besteko saldoari. • Gehieneko interes-mota: Euribor, sei hilabetera, gehi % 3.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko otsailaren 17tik abenduaren 31ra arte.
Harremanetarako:	Zuzenean Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza. Telefono-zenbakia: 012.
Web esteka:	http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_pymes_2014_finanzas/eu_pyme2013/ayudas_pymes_2013_finanzas.html

6.1.2 Lanbide.

6.1.2.1 «Enpresa-idea» bat garatzeko laguntzak, ekintzaitzako toki-proiektuen barruan.

Erakundea: Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua.

Laguntza mota: Lagun egitea eta finantzatzea.

Laguntzaren xedea: Edozein jarduera-arlotan negozio-idea bat aztertzeo eta garatzeko laguntzak, sustatzaileak horretan soilik aritzeko ematekoak.

Pertsona/Erakunde onuradunak: Pertsona fisiko ekintzaileak.

Bete beharreko baldintzak:

- Izena inoiz eman ez izana Ekonomia-Jardueren gaineko zergaren Erroldan (EJZ), ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.
- Ideia bat izatea enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko jarduera-arlo batean (jarduera-arlo hori edozein izan daiteke).
- Deialdi honetako 3. artikuluan jasotako erakunderen baten ekintzaitza-arloko aholkuak eta laguntza emateko prozesu batean sartuta egotea.
- Beren enpresa-idea aztertzeari eta garatzeari baino ez ekitea.
- Enpresa-idea sortzeko eta garatzeko egiten diren aholkularitza- eta laguntza-ekintza guztietara joatea. Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek zehaztuko dituzte ekintza horiek.
- Ez jasotzea inolako laguntzarik helburu berarako.

Diru-laguntzaren zenbatekoa: Hona sustatzaileei eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoak, enpresa-idea gara dezaten:

- 2.000 euro, baldin eta sustatzailea 18 urte eta 25 urte bitartekoa bada, eskabidea aurkezten duen unean.
- 1.500 euro, baldin eta sustatzailea 18 urte eta 25 urte bitartekoa bada, eskabidea aurkezten duen unean.

Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	7 lagun egun daude laguntzen eskabideak aurkezteko, lagun egite-prozesua hasten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua. • http://www.lanbide.net
Web esteka:	http://www.lanbide.net/plsql/AYU_DETALLESUBVENCION?id_oma=E&codigo=81

6.1.2.2 Tokiko ekintzailtza-proiektuen barruan, enpresa-jarduera berriak martxan jartzera bideratutako diru-laguntzak.

Erakundea:	Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua.
Laguntza mota:	Lagun egitea eta finantzatzea.
Laguntzaren xedea:	Tokiko ekintzailtza-proiektuen barruan, enpresa-jarduera berriak martxan jartzera bideratutako diru-laguntzak.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	Pertsona fisiko ekintzaileak.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none"> • EAEn erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea. • Langabeak izatea eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille bezala izena emanda egotea. • Bideragarritasun-plan bat izatea enpresa edo negozio berri bat abian jartzeko, zeina dagokion erakunde laguntzaileak balioztatu beharko baitu lagun egite-fasearen barruan. • Deialdi honetako 3. artikuluan jasotako erakunderen baten ekintzailtza-arloko aholkuak eta laguntza emateko prozesu batean egotea. • Enpresa-jarduerak EAEn izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, eta lantokiak bertan kokatuta.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	-
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	Hona sustatzaileei eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoak, enpresa-idea gara dezaten: <ul style="list-style-type: none"> • 2.000 euro, baldin eta sustatzailea 18 urte eta 25 urte bitartekoa bada, eskabidea aurkezten duen unean. • 1.500 euro, baldin eta sustatzailea 18 urte eta 25 urte bitartekoa bada, eskabidea aurkezten duen unean.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	7 lanegun, lagun egite-prozesua hasten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua. • http://www.lanbide.net
Web esteka:	http://www.lanbide.net/plsql/AYU_DETALLESUBVENCION?idiona=E&codigo=82

6.1.2.3 Enpresa-ekin bati ekin dioten eta «proiektua egonkortzeko» laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak.

Erakundea:	Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua.
Laguntza mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	Enpresaren eguneroko kudeaketan aholkularitza eta lagun egiteko gastuak, bai eta Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen Araubide Berezia kotizatzekeo gastuak ere.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	Pertsona fisiko ekintzaileak.

- Bete beharreko baldintzak:**
- EAEn erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea.
 - Ekonomia-jardueren gaineko zergaren Erroldan eta Langile Autonomoen Araubide Berezia alta emanda izatea, 2014ko ekitaldia bitartean, eta 2014ko urriaren 18a baino lehen.
 - Enpresa-jarduerak EAEn izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, baita lantokia ere.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	-
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	3.000 euro gehienez.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	15 lanegun, deialdia EHAAn argitaratu den egunaren biharamunetik aurrera, data horretan baino lehenago egindako alten kasuan, eta 15 lanegun, Ekonomiaren Jardueren gaineko Zergan alta eman denetik, data horren ondoren egindako alten kasuan.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua. • http://www.lanbide.net
Web esteka:	http://www.lanbide.net/plsql/AYU_DETALLESUBVENCION?id_ioma=E&codigo=83

6.1.3 SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.

6.1.3.1 E-KONTSULTA.

Erakundea: SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.

Laguntza mota: Laguntza tekniko espezializatua.

Laguntzaren xedea: Teknikari adituek emandako doako laguntza.

Pertsona/Erakunde Enpresa txiki eta ertainak, Merkataritza –Handia, Txikia–, beste

onuradunak:	batzuk, elkarte sektorialak eta enpresarialak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea, autonomoak, pertsona fisikoak, tokiko edo eskualdeko garapen-agentziak.
Bete beharreko baldintzak:	E-Kontsulta eskaera-formularioa aurkeztea.
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	<ul style="list-style-type: none">• Dauden teknologiei eta haien aplikazioari buruzko informazioa.• Merkatuan dauden produktuei eta irtenbideei buruzko informazioa.• Proiektu teknologiko bati ekiteko erabakiari buruzko aholkularitza.• Irtenbide teknologikoa ezartzen den bitarteko laguntza.• Inbertsio teknologikoa optimizatzeko laguntza.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	-
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.
Harremanetarako:	info@spri.es Telefono-zenbakia: 902 702 142
Enlace Web:	http://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=369

6.1.3.2 Innobideak-kudeabide programa.

Erakundea:	SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.
Laguntza mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	EAEko enpresen lehiakortasuna hobetzea, Kudeaketa Aurreratuko metodologiak, tresnak eta printzipioak aplikatzen eta ezartzen lagunduz, hasierako egiaztatze baten bidez, eta pilotu-proiektua eta/edo egonkortze-proiektuak garatzearen bitartez.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	<ul style="list-style-type: none">• Enpresa txiki eta ertainak.• Handia.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none">• Enpresek Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoko zentro bat edukitzea.• Industria-jarduera hauek egitea: erauztekoak, transformatzaileak, produktiboak, aurreko jardueren prozesu produktiboari lotutako zerbitzu teknikoenak eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arlokoak. Dagokion jarduera-ekonomikoen gaineko zergan altan egotearen ziurtagiriaren arabera baloratuko da faktore hori.• Gutxienez 50 langile izatea (urtean lanaldi osoa duten langileen kopuruaz ari gara). Enpresaren jarduerari atxikitako langile autonomoak, mota horretakoak izateagatik Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egoterik ez daudenak, enpresako langiletzat jotzen dira.• Kudeaketa Aurreratuaren Hasierako Egiaztatze-Txostena izatea, Euskalitek egina.• Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko eta/edo haren entitate laguntzaileekiko betebeharretan egunean egotea, bai eta SPRI taldearekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko betebehar oro beteta edukitzea ere.
Diruz lagundu daitezkeen	Kudeabideren Erregistroan inskribatutako profesionalak dituzten kanpoko enpresak kontratatzekeo gastuak,

kontzeptuak:	aurkeztutako proiektuaren eremuan.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	Itzultzekoak ez diren diru-laguntzak, proiektuaren gastu hautagarri egiaztatuen % 60; gehienez ere 10.000 euroko diru-laguntza enpresa bakoitzeko.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko martxoaren 18tik urriaren 30a arte.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none">• http://www.kudeabide.com/• info@spri.es• Telefono-zenbakia: 902 702 142.
Web esteka:	http://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=509

6.1.3.3 Renove Makineria.

Erakundea:	SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.
Laguntza mota:	Laguntzak.
Laguntzaren xedea:	Enpresa industrial txiki eta ertainen ekipamendu produktiboen modernizatzeko-maila handia lortzea, eta lan-segurtasuneko eta osasuneko arauetara egokitzea, bai eta haien produktibitatea hobetzea, lehiakortasun-maila handitzeko.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	<ul style="list-style-type: none">• Mikroenpresak.• Enpresa txiki eta ertainak.• Langile autonomoak.
Bete beharreko	<ul style="list-style-type: none">• Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoko zentro bat izatea, non diruz laguntzen diren makinak kokatuko

baldintzak:	<p>baitira gutxienez hiru urtez diru-laguntza ematen den egunetik kontaktzen hasita.</p> <ul style="list-style-type: none">• Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea, bai eta SPRI taldearekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko betebehar oro beteta edukitzea ere.• Ez egotea laguntza jasotzeko baztertuta.
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	<p>Enpresa industrialen ekipamendu produktiboak modernizatzeko makinak erostea, lan-seguritasuneko eta osasuneko arauetara egokituta, bai eta produktibitatea hobetzea ere, lehiakortasun-maila handitzeko.</p>
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none">• Makina berriak erosteko egiaztatutako gastuen % 15.• Gehienez, 70.000 euro, makina erosi berri bakoitzeko.• Urteko 100.000 euroko laguntza emango zaio gehienez ere enpresa bakoitzari.
Emakumeentzako neurri berezia:	<p>Ez.</p>
Eskaera aurkezteko epea:	<p>2014ko otsailaren 11tik ekainaren 3a. Itxita, aurrekontua agortu delako.</p>
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none">• http://www.spri.es/maquina• info@spri.es• Telefono-zenbakia: 902 702 142.
Web esteka:	<p>http://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=504</p>

6.1.3.4 Innobideak- Lehiabide 2014 programa.

Erakundea:	SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.
Laguntza mota:	Zerbitzuak.
Laguntzaren xedea:	Enpresa berritzaileei laguntzea, betiere baldin eta, edozein dela ere haien gaitasun teknologikoa, beren burua garatzeko, handitzeko, merkatu berrietara heltzeko eta nazioartekotzeko anbizio handia erakusten badute, bai eta beste batzuk erakartzeko gaitasun handia ere.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa txiki eta ertainak. • Handia.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresek Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoko zentro bat eduki beharko dute. • Industria-jarduera hauek egitea: erauztekoak, transformatzaileak, produktiboak, aurreko jardueren prozesu produktiboari lotutako zerbitzu teknikoenak eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arlokoak. • Banakako proiektuak izanez gero, gutxienez 40 langile izan beharko dute. • Lankidetzaren proiektuak izanez gero, gutxienez 20 langile izan beharko dute. Lankidetzaren proiektu horietan parte hartzen duten enpresa guztiek batera gutxienez 80 langile bildu beharko dute.
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	Enpresen gaur egungo negozio-eredua berriz definitzen duten edo funtsean berritzen duten proiektuak egitea, bakarrik edo lankidetzan, betiere antolakundearen lehiakortasuna nabarmen erraztuz.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	Itzultzen ez diren diru-laguntzak, kopuru desberdinetakoak, proiektuaren eta kasuen arabera.
Emakumeentzako	Ez.

neurri berezia:

Eskaera aurkezteko epea: 2014ko martxoaren 18tik irailaren 30a arte.

Harremanetarako:

- <http://www.spri.es/lehiabide>
- info@spri.es
- Telefono-zenbakia: 902 702 142.

Web esteka: <http://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=508>

6.1.3.5 “MiniConnect” programa, enpresa-proiektuei laguntzeko (2014).

Erakundea: SPRI, Euskal Garapenerako Agentzia.

Laguntza mota: Diru-laguntza.

Laguntzaren xedea: Emakida ekonomiko bat ematea, industria-arloko enpresa gazteek edo haiei lotutako zerbitzu-enpresek EAeko Enpresen eta Berrikuntzako Zentroaren (EBZ) tutoretzapean Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen dituzten enpresa-proiektuak finantzatzeko; enpresa-mota horiek berritzaileak izateaz gain, hazteko gaitasuna baitute.

Pertsona/Erakunde onuradunak: Enpresa txikiak.

Bete beharreko baldintzak:

- 50 pertsona baino gutxiago enplegatzea.
- Urteko negozio-bolumena edo haren urteko balantze orokorra ez izatea 10 miloi eurokoa baino handiagoa.
- Ez izatea 6 urte baino gehiagoko antzinasuna.
- Enpresak gutxienez 10 enplegu berri sortu beharko du proiektua garatzen den aldian.
- Enpresak berritzailea izan beharko du eta hazteko ahalmena, Ikerketa eta Garapenerako gastu jakin batzuekin.

- Egoitza soziala edo gutxienez jarduera-zentro bat Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta izan beharko du.
- Beste batzuk.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	Haz daitezkeen proiektutzat jotzen diren enpresa-proiektuak hazteko eta garatzeko, lagun egitea eta tutoretza ematea
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	Enpresa-proiektua martxan jartzeko egin beharreko gastuaren edo inbertsioaren % 100 arte, behin talde ebaluatzaileak aurrekontua onartu ondoren, eta, betiere, gehienez ere 100.000 euro.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • Urkixo zumarkalea 36 4. solairua: Bizkaia Plaza eraikina. 48011 Bilbo. • Telefono-zenbakia: 902 702 142.
Web esteka:	http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/ayuda_subvencion/spri_miniconnect_2014/eu_spri_m/eu_arch.html

6.1.3.6 Ekintzaile: lagun egiteko diru-laguntzak.

Erakundea:	Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI).
Laguntza mota:	Lagun egitea eta finantzatzea.
Laguntzaren xedea:	Pertsona edo talde sustatzailearentzako lagun egite-prozesurako diru-laguntzak, ideia hazteko eta Enpresa Plana egiteko prozesuan zehar eta proiektua martxan jarri arte. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	Pertsona fisiko zein juridikoak, baldin eta industriaren edo industriari lotutako zerbitzuen sektoreko enpresa proiektu berritzaile bat badute, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzekoa

	dena.
Bete beharreko baldintzak:	<p>Pertsona Fisikoentzako Baldintzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona fisikoak EAEn erroldatua dagoela egiaztatu beharko du. <p>Pertsona Juridikoentzako Baldintzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitza soziala, erabakigunea eta/edo gutxienez jarduerazentro bat EAEn izatea. • Epea betetako zorrik ez izatea SPRI taldeko edozein elkarterekin, ez eta erakunde sustatzaile edo kolaboratzaileekin ere (hala onuradunak nola pertsona sustatzaileak edota loturik dauden sozietateak). • Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea (lege hori indarrean dago). <p>Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta izatea, indarrean den legediak eskatutako mugen arabera.</p>
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	<p>Laguntza SPRIren bidez igorriko da, Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (CEI) ematen duen txostenaren arabera, zentro horrek berak administratuko ditu ordainketak, proiektua martxan jartzeko gastuak egin eta justifikatu ahala:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona edo talde sustatzailearen dedikazio eta trebakuntza (hileko 600 euro). • Enpresa-trebakuntza eta trebakuntza espezifikoa. • Aholkularitza emateko eta kanpoko laguntza teknikoa emateko izandako gastuak. • Prospekzio-ikerketak eta dokumentazioa. • Azoletan parte hartzea, bidaiak, etab. • Maketa eta prototipoak egitea. • Beste batzuk.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagun daitezkeen gastuen % 100eraino iritsiko dira, 30.000 euroko muga izanik, gehienez ere 18 hilabeteko betearazpen-eparen barruan. • CEIk aholkularitza eta jarduerak kokatzeko azpiegiturak

emango dizkie sustatzaileei, eskura den espazioa kontuan izanik.

Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.
Contacto:	<ul style="list-style-type: none"> • SPRI. Telefono-zenbakia: 902 702 142. • Helbide elektronikoa: info@spri.es
Web esteka:	https://app3.spri.net/ayudaspri//paginas/ficha.aspx?idprograma=390

6.1.3.7 Ekintzaile: finantzaketa lortzeko laguntza.

Erakundea: **SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.**

Laguntza mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	Enpresa Plana gauzatzeko behar diren inbertsioetarako finantzaketa lortzen laguntzea, hau da, formalizatuko diren maileguen finantzaketa kostua gutxitzea.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	Pertsona fisiko zein juridikoentzat, baldin eta industriaren edo industriari lotutako zerbitzuen sektoreko enpresa proiektu berritzaile bat badute, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzekoa dena.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none"> • Industriaren edo industriari loturiko zerbitzuen sektoreko jarduera berritzailea izatea. • Enpresa-proiektua 3 urteko epean betearazi behar da, mailegua ematen denetik zenbatzen hasita. • Gutxienez 3 enplegu sortzea 3 urtean. • Egoitza soziala, erabakigunea eta/edo gutxienez jarduerazentro bat EAEn izatea.

- Sortu berria izatea, hau da, eskabidea aurkezten den urtearen aurreko urteko urtarrilaren 1az geroztik sortua izatea.
- Enpresa txiki edo ertaina bezala sailkatuta egotea.
- Epea betetako zorrik ez izatea SPRI taldeko edozein elkarterekin, ez eta erakunde sustatzaile edo kolaboratzaileekin ere (hala onuradunak nola pertsona sustatzaileak edota loturik dauden sozietateak).

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:

Ibilgetu materiala, lur-sailak eta eraikinak izan ezik. Lokalen berriztatzea eta egokitzapena, makinak, ekipo-ondasunak, erremintak, industria-ibilgailuak, instalazio teknikoak, altzariak, aktibo finko materialetan eginiko beste inbertsio batzuk.

Ibilgetu ez-materiala: Industria-jabetza, jabetza intelektuala eta administrazio pizgarrien kanonak edota frankiziak, ikerketa- eta garapen-gastuak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Maileguen ezaugarriak:

- Gutxieneko kopurua: 40.000 euro. Gehieneko kopurua: 180.000 euro.
- Interes-tasak: Sei hilabeterako euriborra + 1,25 Amortizazio-epea: 7 urte.
- Ezaldia: 2 urte. Kuotak hiruhilekoak, hiruhileko natural bakoitzaren amaieran.
- Bermeak: enpresa-proiektua gauzatzeko konpromisoa.
- Irekiera-komisioa eta ikerketa-komisioa: salbuetsia.

Luzaro-k SPRI SARI kobrantzaren berri eman ostean, azken horrek ondoko zenbatekoak ordainduko dizkio mailegu-hartzaileari:

- Mailegua formalizatu denetik betetzen ari den hiruhileko naturala bukatu arte sortu diren interesak.
- Hurrengo 8 hiruhileko naturaletan sortutako interesak. Irekiera-komisioa eta ikerketa-komisioa.

Emakumeentzako neurri berezia:

Ez.

Eskaera aurkezteko epea: 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.

Harremanetarako:

- SPRI. Telefono-zenbakia: 902 702 142.
- Helbide elektronikoa: info@spri.es

Web esteka: <https://app3.spri.net/ayudaspri//paginas/ficha.aspx?idprograma=390>

6.1.3.8 Enpresa txiki eta ertainen ondorengotza.

Erakundea: **SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.**

Laguntza mota: Finantzaketa.

Laguntza mota: Euskal Autonomia Erkidegoko mikroenpresetan, enpresa txikietan eta enpresa txiki eta ertainetan hausnarketa-prozesuak babestea, enpresen kudeaketaren eta/edo jabetzaren ondorengotza planifikatzen laguntzeko, ondorengotza era ordenatuan egiteko, enpresen jarraipena ziurtatu eta ahalik eta lanpostu gehien mantendu eta iraunarazteko.

Pertsona/Erakunde onuradunak: Honako baldintzak betetzen dituzten Euskadiko mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainak: gutxienez sei pertsona lanean izanda, ondorengotza-prozesu batean egotea, edo epe motz edo ertain batean egoera horretan egongo direla aurreikustea.

Bete beharreko baldintzak:

- EAEn jarduera zentro bat edukitzea, gutxienez sei langile hartzen dituena.
- Armen produkzioan, merkaturatzean eta finantzaketan ez aritzea.
- Baldintzak laguntza-eskaera eta likidazio-eskaera aurkezten den unean bete beharko dira.
- EAEn diruz lagun daitezkeen jarduerak egitea.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:

- Enpresaren kudeaketaren, gobernuaren eta jabetzaren aurretiko diagnosis egin beharko da, enpresaburuari eta ondorengotza-prozesuan barne dauden gainerako pertsonen aholkularitza pertsonalizatua emanez. Gehieneko epea: hiru hilabete, laguntza-eskabidea ebatzen den egunetik aurrera.

	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresaren gehiengo kapital soziala ordezkatzeko duten pertsonen ondorengotza-protokoloa egitea eta, ondoren, formalizatzea. Gehienez ere hamabi hilabeteko epea, aurretiko diagnostikoa egitea amaitzen den egunetik aurrera edo fase hau ebatzen den egunetik aurrera, eskaera independentea bada. • Ondorengotza-protokoloa praktikan jartzeko eta aldizka ikusketak egiteko kanpoko laguntza, gehienez ere sei hilabetetan zehar, oinordetza-protokoloa sinatzen den egunetik edo fase hau ebatzen den egunetik aurrera, eskaera independentea bada.
<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa:</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitezkeen fase bakoitzeko gastuen % 30ekoa izango da. • Fase desberdinetako laguntzen gehienezko muga: <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurretiko diagnostikoa eta aholkularitza pertsonalizatua: 1.000 euro. 2. Ondorengotza-protokoloa prestatu eta formalizatzea: 10.000 euro. 3. Praktikan jartzeko eta ikusketak egiteko laguntza: 4.000 euro.
<p>Emakumeentzako neurri berezia:</p>	<p>Ez.</p>
<p>Eskaera aurkezteko epea:</p>	<p>Irekia: Aurkezten diren eskaerak hurrenkera kronologikoaren arabera aztertuko dira, behar bezala bete direnean eta urtean helburu horretarako gaitu den kredituaren mugara bitarte.</p> <p>Ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1etik urriaren 31 arte.</p>
<p>Harremanetarako:</p>	<ul style="list-style-type: none"> • SPRI. Telefono-zenbakia: 902 702 142. • Helbide elektronikoa: info@spri.es
<p>Web esteka:</p>	<p>https://app3.spri.net/ayudaspri//paginas/ficha.aspx?idprograma=494</p>

6.1.3.9 AFI: Inbertsiorako finantza-laguntzak. 2014.**Erakundea:** **Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI).****Laguntza mota:** Finantzaketa.**Laguntzaren xedea:** Euskal Autonomia Erkidegoko industria, merkataritza eta turismo sektoreetako enpresen inbertsioak (ibilgetu ez-materialak edota material berriak eta zirkulatzailak eskuratzeko) finantzatzeko laguntzak.**Pertsona/
Erakunde
onuradunak:****Industria-sektorea**

- Negozio-bolumenari dagokionez, jarduera nagusitzat honako hauetako bat duten enpresak: industria, erauzketa eta/edo eraldaketa, ekoizpena, produktu-prozesuari lotutako zerbitzuak, logistika, aurrekoekin lotura dutenak eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arloarekin lotutako enpresak.
- Jendearentzat zuzenean bideratutako merkataritza-jarduera oso murrizta izango da, sozietatearen helburua eta negozio-bolumena aintzat harturik.
- Era berean, automobilgintzako mantentze- eta konponketa-tailerrak ere sartuko dira sektore honetan.

Merkataritza-sektorea

- Negozio-bolumena aintzat hartuta, gehienbat merkataritza-jardueran aritzen diren enpresak.
- Merkataritza-jardueratzat hauxe joko da: merkatuan eskuragarri jartzea helburu horrekin eskuratu diren produktu eta salgaiak, haietan aldaketa nabaririk egin gabe, bai eta kontsumo-amaierako ondasunen salmenta ere, baldin eta ekoizleek, artisautzek edo industrialek egindakoa bada (kontsumo-amaierako ondasuntzat jotzen dira produkzio- eta merkaturatze-prozesuetan eta hirugarren pertsona/erakundeei zerbitzua emateko prozesuetan erabiltzeko ez direnak).

Turismo-sektorea

- Negozio-bolumena aintzat hartuta, gehienbat turismo-jardueran aritzen diren enpresak.
- Jatetxeak kanpoan utziko dira.
- Turismo-jardueratzat joko dira turismoko lurralde ordezkartzek

	halakotzat hartzen dituztenak.
Bete beharreko baldintzak:	<p>Onar daitezkeen inbertsioa honako hau izango da gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 100.000 euro, industria-sektorean. • 30.000 euro, merkataritza-sektorean. • 30.000 euro, turismo-sektorean.
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	–
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagun daitezkeen inbertsiorako finantza-mailegu edo/eta -errentamenduen kasuan portzentajezko puntu 1. • Zirkulatzailerako maileguen kasuan portzentajezko 0,5 puntu. • Elkarrekiko berme sozietate batek, zainak hitzarmena sinatzen baitu, bermatutako finantza-eragiketaren kasuan, portzentajezko 0,25 puntu gehigarri.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez
Eskaera aurkezteko epea:	<p>2014ko martxoaren 1etik azaroaren 14a arte.</p> <p>Aurkezteko azken eguna, 2014ko azaroaren 14a.</p>
Harremanetarako :	<ul style="list-style-type: none"> • SPRI. Telefono-zenbakia: 902 702 142. • Helbide elektronikoa: info@spri.es.
Web esteka:	https://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=505

6.1.3.10 +Digital@ 2014.**Erakundea:** SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.**Laguntza mota:** Finantzaketa.**Laguntzaren xedea:** IKTen bidez, enpresa txiki eta ertainen barne-prozesuak digitalizatzen laguntzea, bai eta enpresa txiki eta ertainek bezeroekin, hornitzaileekin eta administrazioekin dituzten harremanak ere, enpresa txiki eta ertain horien lehiakortasuna erraztu eta finkatzeko.**Pertsona/Erakunde onuradunak:** Enpresa txiki eta ertainak.**Bete beharreko baldintzak:**

- Enpresa txiki edo ertaina izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoko zentro bat edukitzea.
- Diruz lagun daitekeen jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egitea.
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea, bai eta SPRI taldearekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko betebehar oro beteta edukitzea ere.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:

- Beharren diagnostikoa eta/edo enpresetan IKTak ezartzeko planak egitea, betiere enpresa espezializatuek egiten badituzte. Halako planak egiteko, SPRIk emandako metodologia jarraitu beharko du enpresa espezializatuak, edo, bestela, enpresetan Informazio eta Komunikazio Teknologia ezartzeko metodologia propioa duela egiaztatu (hori ere SPRIk berariaz onartutakoa).
- Informazio eta Komunikazio Teknologia Ezartzeko Planak gauzatzea. Plan horiek enpresako negozio-prozesu guztiak edo parte bat digitalizatzea jo beharko dute, eta honako jarduera hauekin lotuta egon beharko dute: Negozio elektronikoa (e-Business), On-line marketina, Erosketak (e-Procurement), Merkataritza elektronikoa (e-Commerce), Merkatu Birtualak (e-Marketplaces), Enpresaren web-orria diseinatu eta ezartzea, Enpresaren Intranet edota Extranet

	diseinatu eta ezartzea, Wiki erako tresnetan oinarritutako Barne Komunikazioko Sistemak diseinatu eta ezartzea, Zaintza Teknologikoa, RFID teknologia eta antzekoak, Segurtasun Sistemak, teknologia arloan aurreratuak diren beste IKT proiektu batzuk.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • Mikroenpresetan eta enpresa txikietan: % 35. • Enpresa ertainetan: % 20. • IKTen ezarpen-planak lantzeko eta/edo diagnosiak egiteko, urtean 2.000 euroko diru-laguntza emango da, gehienez. • Ekitaldian zehar diruz laguntzeko moduko jarduera bat edo gehiago egiteko, urtean 12.000 euroko diru-laguntza emango da, gehienez. • Salbuespen gisa, programaren Batzorde Betearazleak beste 33.000 euro gehitu ahal izango dizkio diru-laguntzari, bikaintzat jotzen diren proiektuetarako.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko martxoaren 18tik irailaren 23a arte.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • SPRI. Telefono-zenbakia: 902 702 142. • Helbide elektronikoa: info@spri.es
Web esteka:	https://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=510

6.1.3.11 Permakuntza Directiv@ 21.**Erakundea:** SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia.**Laguntzaren mota:** Trebakuntza.**Laguntzaren xedea:** Kudeaketa aurreratuaren bidez nola aurrera egin berritzeko eta lehiakorrago izateko behar diren sei elementuetan. Industria- eta zerbitzu-enpresetako kudeatzaile eta zuzendaritza-karguei zuzenduta dago, eta doakoa da.**Pertsona/Erakunde onuradunak:**

- Mikroenpresak
- Enpresa txiki eta ertainak.
- Pertsona fisikoak
- Handia
- Autonomoak

Bete beharreko baldintzak: –**Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:** –**Diru-laguntzaren zenbatekoa:** Trebakuntza doan ematen da.**Emakumeentzako neurri berezia:** Ez.**Eskaera aurkezteko epea:** 2014ko otsailaren 20tik abenduren 31 arte.**Harremanetarako:**

- SPRI. Telefono-zenbakia: 902 702 142.
- Helbide elektronikoa: info@spri.es

Enlace Web: <https://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=411>

6.1.3.12 Microenpresa Digital@.

Erakundea:	Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI).
Laguntzaren mota:	Trebakuntza.
Laguntzaren xedea:	<p>"Inplantalarien" zerbitzua eta trebakuntza-zerbitzua mikroenpresentzat, informazioaren teknologiaren erabileraren trebakuntzan lagunduz lehiakortasuna hobetu dezaten. Ekimen horrek bi jarduera-ildo ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. IKT (informazio eta komunikazioaren teknologiak) konponbideak ezartzea autonomo eta mikroenpresentzako, kudeaketarako aplikazioak instalatzen dituen aholkularia teknologikoa eskaintzen du mikroenpresen neurrira. Gehienak doakoak eta erabiltzeko errazak dira, eta denak IKT Konponbideen Katalogoan eskura daitezke. 2. Bi orduko ikastaroen eskaintza, KZgunea Zentroen Sareko herrietan, negozioa teknologia berrietan sartzeko trebakuntza jasotzeko.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	<ul style="list-style-type: none"> • Mikroenpresak eta Autonomoak.
Bete beharreko baldintzak:	–
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	–
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	Trebakuntza gehiena doakoa da.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • SPRI. Telefono-zenbakia: 902 702 142. • Helbide elektronikoa: info@spri.es
Web esteka:	https://app3.spri.net/ayudaspri//paginas/ficha.aspx?idprograma=471

6.2 Foru-aldundiak.

6.2.1 Arabako Foru Aldundia.

6.2.1.1 Berrikuntzarako eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzen programa. 2014.

Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzaren mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	Enpresa txiki eta ertainek zentro teknologikoak, unibertsitate-zentroak, fundazioak eta enpresa-elkarteak, berrikuntza eta enpresaren lehiakortasuna hobetzera zuzendutako proiektuak eta/edo ekintzak egin ditzaten bultzatzea, eta horren aldeko pizgarriak ematea.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	<ul style="list-style-type: none"> • Produkzio- edo zerbitzu-zentroetako bat gutxienez Araban daukaten enpresa ertain eta txikiak, era juridikoa edozein izanda ere. • Egoitza fiskala Araban duten autonomoak. • Araban produkzio edo zerbitzu zentroyen bat duten teknologia edota ikerketa zentroak. • Araban irakaskuntza unitateren bat duten unibertsitate zentroak. • Sozietate eta zerga-egoitza Araban duten fundazioak eta enpresa-elkarteak.
Bete beharreko baldintzak:	<p>Kontratazio berriengatik programa honen babesean diru-laguntza jasotzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikertzaileak, teknikariak edota sortzaileak izatea. • Kontratatzen den pertsonak enpresa edo erakundeko zuzendaritza taldeko inorekin ez izatea odolezko nahiz ezkontza bidezko lehenengo edo bigarren mailako ahaidetasunik. • Gutxienez sei hilabeteko kontratua izatea, lanaldi osokoa. • Ezin izango dute enpresako langile-kopurua murriztu.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko profesionalak, zentro teknologikoak edo zerbitzu-enpresa profesionalak kontratatzea enpresarentzat erabilgarri diren gaietan, eta aurrez aipatutako jarduerak garatzen lagungarri diren gaietan. • Barneko departamentuetan ikerketa-proiektuetan egindako lanak direla -eta izandako langile- gastuak.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • ETE eta autonomoentzako diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren %30, gehienez. • Gainerako pertsona edo erakunde onuradunentzako diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren % 50, gehienez. • Langile berriak kontratatzeke (ikerlaria eta/edo teknikaria eta/edo sortzailea) soldata-kostu gordinaren % 30era arte, erakunde onuradunaren Gizarte Segurantzaren kostuak barne, eta 3.000 euro gehienez urte eta kontratu bakoitzeko gizonentzako, eta 3.300 euro gehienez emakumeentzako. <p>Diru-laguntzaren gehienezko mugak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 10.000 euro proiektu eta urte bakoitzeko, barne-gastuetarako, kontratazio berriak kontuan hartu gabe. • 12.000 euro proiektu eta urte bakoitzeko, kontratazio berririk ez duten kanpo-gastuetarako. • 9.900 euro, kontratazio berrietarako proiektu eta urte bakoitzeko. • 15.000 euro proiektu eta urte bakoitzeko, kontratazio berriak dituzten kanpoko proiektuetarako, zein kanpoko proiektuetarako kontratazio berriak barne hartuta. • Guztira 24.000 euro, erakunde onuradun eta urte bakoitzeko.
Emakumeentzako neurri berezia:	Gizarte Segurantzako kuotetan, % 10eko hobaria (3.300 € gehienez).
Eskaera aurkezteko epea:	2014ko martxoaren 27tik apirilaren 25a arte.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • Arabako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomiko eta Foru Administrazioa Saila.

	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono-zenbakia: 945 181 818.
Web esteka:	https://www.alava.net/BOTHA/Boletines/2014/035/2014_035_01434.pdf

6.2.1.2 Araban ekintzaile izan eta enpresa berriak sortzeko laguntza-bidea - 2014.

Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzaren mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	Arabian ekintzaleentzako eta enpresa berriak sortzeko babesa ematea, enpresa berritzaileei arreta eta babes berezia eskainiz.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskuratu ahal izango dituzte proiektu berritzaileak dauzkaten sustatzaile edo enpresa hauek: • Banakako sustatzaileak, enpresa unitate berri bat sortzeko proiektua daukatenak. • Beren jarduera dibertsifikatu nahi duten Arabako enpresak, aurrekoaz bestelako nortasun juridikoa duen enpresa unitate berri bat sortzeko proiektu zehatza aurkeztuz. • Egoitza Arabatik kanpoan duten eta gure lurraldean jarduera-gune bat ezartzen duen enpresa edo sustatzaileak. • Dagoeneko eraturik dauden Arabako enpresak, baldin eta eskabidea aurkezteko egunean gehienez ere bi urteko antzintasuna badaukate eta oraindik ere beren jarduera abiarazteko fasean badaude.
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Merkatu- eta/edo bideragarritasun-azterketak aurrera eramane eta sakontzea. • Diruz lagundu daitezkeen proiektuarekin loturiko komunikazio-gastuak. • Berariazko txostenak, azterlanak eta aholkularitza

teknikoa.

- Prototipoak diseinatzeko eta egiteko gastuak.
- Patente, homologazio, baliagarritasun eredu eta marka komertzialetarako gastuak.
- Berriazko ikastaro teknikoak.
- Software eta hardware erostea oro har. Sustatzaile bakoitzeko gehienez taula bat.
- Inbertsioak, baldin eta enpresa unitatea eraturik badago diru-laguntza ordaintzeko garaian (lursailak, eraikinak eta ibilgailuak izan ezik).

Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none">• Laguntza hauek, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 50eraino hel daitezkeen diru-laguntzen bidez gauzatuko dira, gehienez ere 20.000 euroko mugarekin proiektu bakoitzeko. Kopuru horretatik gehienez ere 10.000 euro egin beharreko ibilgetu eskuratzeetatik etor daitezke.• Gutxieneko diru-laguntza, 1.500 euro, proiektu bat diruz laguntzekoa izateko.
Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none">• Arabako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomiko eta Foru Administrazioa Saila• Telefono-zenbakia: 945 181 818.
Web esteka:	https://www.alava.net/BOTHA/Boletines/2012/036/2012_036_01741.pdf

6.2.1.3 Arabako enpresa txiki eta ertainen (ETE) eta autonomoen proiektuen finantzaketa errazteko programa.

Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzaren mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	Arabako enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei proiektu berritzaileak finantzatzen erraztea, Arabako Foru Aldundiaren abalaren bidez (enpresa nazioartekotzeko, haren lehiakortasuna hobetzeko, pasiboak berregituratzeko, birkapitalizatze eta enpresa bera eraldatzeko proiektuak izan behar dute).
Pertsona/Erakunde onuradunak:	<p>Abalak eskuratzen dituzten enpresa txiki eta ertainek eta autonomoek baldintza hauexek bete beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona fisiko edo juridikoak izatea, eta ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea. • Araban gizarte eta zerga egoitza edota lurraldean ekoizpen edo zerbitzu zentro bat gutxienez edukitzea, kontratupeko langileekin. • Abala ematen zaien unean, Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea. • Krisi egoeran ez egotea, Batzordearen 2004/C 244 Adierazpenean (2004ko urriaren 1eko DOCE) ezarritakoari jarraikiz. <p>• Enpresa txiki eta ertainek eta autonomoek espedientean sartu beharko dute agiri bat, non islatu beharko baita zer bilakaera aurreikusten zaion enpresako langile-kopuruari abala eman den indarreko ekitaldian eta hurrengo hiruretan, enplegu egonkorra eta lurraldearen jarduera ekonomikoa bermatze aldera.</p>
Bete beharreko baldintzak:	Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dira nazioartekotze, lehiakortasuna hobetze, pasiboen berregituratze, birkapitalizatze eta enpresa eraldatzeko arloetako proiektu berritzaileak.
Diruz lagun	Diruz lagun daitezkeen hurrengo proiektu hauentzako

daitezkeen kontzeptuak:	<p>baldintza zehatzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekintzailtza-proiektuak. • "Green"tzat jotzen diren enpresen proiektuak. • Enpresen arteko itun estrategikoak edo lankidetzak sustatzea. • Nazioartekotzeko bideak. • Lehiakortasuna hobetzeko bideak. • Bideragarritasuna duten enpresetan pasiboen berregituratzea. • Partaidetutako enpresei laguntzeko bidea, enpresa-proiektuen kapitalizazioa.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<p>Finantza premiei erantzuna emateko maileguetatik datozen enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen diru-arriskuak bermatuko dituzte elkarren bermerako sozietateek emandako finantza abalek, finantza erakundeen aurrean.</p>
Emakumeentzako neurri berezia:	<p>Ez</p>
Eskaera aurkezteko epea:	<p>Irekita aurrekontua agortu arte.</p>
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • ELKARGI S.G.R-ren Arabako Zuzendaritza Posta kalea 24, 1. solairua. 01001 Vitoria-Gasteiz. • OINARRI SGRren Arabako egoitza. E-3 eraikina, 2. solairua. Arabako Teknologia Parkea - Miñao, 01150 VITORIA-GASTEIZ).
Web esteka:	<p>https://www.alava.net/BOTHA/Boletines/2012/105/2012_10_5_05002.pdf</p>

6.2.1.4 Arabako artisau-sektoreko laguntzen lerroa, 2014ko ekitaldirako.

Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzaren mota: Diru-laguntza.

Laguntzaren xedea: Arabako artisau-sektoreari laguntzea eta haren jarduera produktiboa sustatzea.

Pertsona/Erakunde onuradunak: Beren kabuz artisau-lanetan dabiltzan pertsonak.

Bete beharreko baldintzak:

Artisauei:

- Artisau direla aitortuta izatea Arabako artisau-sektorea arautzen duen (51/2013) Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarri bezala.
- Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela egiaztatzea.
- Arabako Artisautzaren Erregistro Orokorrean izena emanda egotea.

Enpresei edo elkarteei:

- Artisau direla aitortuta izatea Arabako artisau-sektorea arautzen duen (51/2013) Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarri bezala.
- Diruz lagun daitekeen aldirako egoitza fiskala edo/eta soziala Arabako Lurralde Historikoan dutela egiaztatzea.

<p>Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Artisauen tailerrak ezartzea, handitzea edo berritzea. • Artisau-jarduerarekin zerikusia duten tresnak, ekipamendu informatikoa eta bestelako materiala erostea. • Prestakuntza-ikastaroetarako matrikularen kostua, ikastaroa egiteko ezinbestekoa den material didaktikorako gastuak barne. • Sustapen-materiala (katalogoak, liburuxkak edo antzekoak) editatzea eta egitea. • Web-orriak ezartzea eta berriz diseinatzea, jarduera-lerro horretan domeinua taxutzeko, sortzeko eta kontratatzeko hasierako gastuak sartuta, bai eta itzulpenak egitekoak ere. • Azoketan parte hartzea, gastu hauek sartuta: inskripzioarena, espazioa alokatzekoa eta estanda muntatzekoa. • Artisaua –aprendiza edo hasi berria– kontratatzeko gastu osoa. • Kanpoko aholkularitza, kudeaketa, negozioaren irudia hobetzeko eta/edo onuradunaren artisautza-jardueraren bideragarritasuna hobetzeko. • Sektorean presentzia handia duten elkarteen edo antolakundeen kasuan soilik, artisau aprendizak edo hasi berriak berriaz hartzaile dituzten jarduerak antolatzea.
<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa:</p>	<p>1.000 eta 5.000 euro bitartekoa.</p>
<p>Emakumeentzako neurri berezia:</p>	<p>Ez.</p>
<p>Eskaera aurkezteko epea:</p>	<p>Diruz lagundu ahalko dira 2014an hasitako eta 2014ko abenduaren 12 arte (azken hori barne) garatutako jarduerak.</p>
<p>Harremanetarako:</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kalea: Félix María Samaniego 14, 01008 Vitoria-Gasteiz. • Telefono-zenbakia: 945 181 555.

Web esteka: http://www.alava.net/cs/Satellite?c=DPA_ProgPromocion_FA&cid=1224001956176&language=eu_ES&pageid=1193045619494&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_ProgPromocion_FA%2FDPA_programaPromocion

6.2.2 Bizkaiko Foru Aldundia.

6.2.2.1 Enpresa-proiektu berritzaileen garapena.

Erakundea: **Bizkaiko Foru Aldundia.**

Laguntzaren mota: Finantzaketa.

Laguntzaren xedea:

- Enpresa-proiektuaren enpresa-plana egiten laguntzea.
- Transferentzia teknologikoari buruzko aholkularitza ematea, zentro teknologiko eta unibertsitateekin burututako lankidetzeta-hitzarmenen bidez.
- Proiektua abiarazteko beharrezko finantzazioa bilatzen laguntzea.
- Hautatutako proiektuen pertsona sustatzaileen edo arduradunen trebakuntza-beharrak aztertzea.
- Proiektuaren arlo ezberdinetan sustatzaileekin edo enpresekin lankidetzan arituko diren profesional edo espezialista independenteak bilatu eta hautatzea.
- Sortutako enpresa berrien kokapenerako sarbidea erraztea.

Pertsona/Erakunde onuradunak:

- Enpresa berritzaile berrien sustatzaile diren pertsona fisikoak.
- Enpresa berritzaile berrien sustatzaile diren enpresak.
- 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen diharduten hasi ez diren enpresa berritzaile berriak.
- Enpresa berritzaile berriak sustatzen dituzten entitate hauek: zentro teknologikoak, unibertsitateak, lanbide heziketako zentroak eta irabazteko asmorik gabeko beste entitate batzuk, baldin eta lehentasunez Ikerketa +

	Garapeneko jarduerak garatzen badituzte.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea edo sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza lurralde horretan izatea. • Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea. • Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana. • Diru-laguntzei buruzko Foru Arauko 12. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea. Baldintza hau Ekonomia Sustatzeko Sailaren Erakundearen eta Pertsonen Erregistroko eskabidean aipaturiko aitopenen bitartez egiaztatuko da.
Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa-planaren garapenak eta definizioak. • Enpresa-proiektuaren bideragarritasunari buruzko azterlanak eta merkatuari buruzko azterketak. • Prototipoak. • Txosten eta azterketa tekniko zehatzak. • Azoketarako bidaiak eta horietan parte hartzea. • Enpresa-proiektu berria garatzeko aholkularitza pertsonalizatua.
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako gastuen % 70erainoko diru-laguntza; gehienez ere 40.000 €. • Lehentasunezko zat jotzen diren proiektuetarako diru-laguntzaren % 80; gehienez ere 60.000 €. • Hazteko ahalmen handikotzat jotzen diren proiektuetarako diru-laguntzaren % 90; gehieneko muga: 80.000 €.
Emakumeentzako neurri berezia:	Talde sustatzailearen gehiengo emakumeek edo 30 urtetik beherako gazteek osatzen badute, 10 puntu gehiago lortu ahal izango dituzte proiektuaren balorazioan.

Eskaera aurkezteko epea:	<ol style="list-style-type: none">1. deialdia 2014ko urtarrilaren 16etik otsailaren 14ko 13:30ak arte.2. deialdia: 2014ko apirilaren 28tik maiatzaren 30a arte (gutxi gorabehera).3. deialdia: 2014ko irailaren 1etik irailaren 30a arte (gutxi gorabehera).
---------------------------------	--

Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none">• Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila.• Telefono-zenbakia: 944 068 008.• Helbide elektronikoa: enpresasustapena@bizkaia.net
Web esteka:	http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6891&idioma=EU&bnetmobile=0&dpto_biz=8&codpath_biz=8 6889 6891

6.2.2.2 Bizkaia Digitala Internet industrialia 2014.

Erakundea: **Bizkaiko Foru Aldundia**

Laguntzaren mota:	Diru-laguntza.
Laguntzaren xedea:	Gauzen Internet-a Bizkaiko enpresen prozesuetan, produktuetan edo zerbitzuetan ezartzen laguntzea eta dinamizatzea.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	Legez merkataritza-elkarte edo kooperatiba-elkarte bezala eratutako enpresak.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none">• Egoitza soziala edo fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea• Ekonomia-jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea.• Langile-.kopurua 3 eta 250 artekoa izatea, eskabidea eskatu zen egunean, eta laguntza onartu eta ordaindu arte.• Bi muga hauetako bat ez gainditzea: urteko 50.000.000 euroko negozio-bolumena edo 43.000.000 eurokoa, balantze orokorrekoa.

- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.
- Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana.
- Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.
- Elkarte publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun-komunitateak eta elkarte zibilak kanpo geratzen dira.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:

- Jarduera nagusia Gauzen Interneten oinarritutako prozesuak, produktuak edo zerbitzuak garatzea duen enpresa berri bat sortzea.
- Dagoeneko dagoen enpresa batean Gauzen Interneteko proiektu bat garatzea.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Proiektua garatzeko gastu hauek, % 60 arte:

- Bideragarritasun-ikerketak eta merkatu-ikerketak, prototipoak, txostenak eta ikerketa tekniko espezifikokoak, proiektua ezartzeko kanpoko aholkularitza eta jabetza intelektualaren eta industrialaren babesa.
- % 40raino: proiektua burutzeko lanari dagozkion barneko langileria-gastuak, 30.000 euroko gehieneko mugaz.
- Gainera, enpresa berrietan, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutakoetan:
- Enpresa berriaren eraketa, ordaindutako kapital sozialaren % 30eraino, eta gehienez ere 10.000 €.
- Negozio-lokal baten errentamendu-gastuak, % 60raino; gehieneko muga: 10.000 €.
- Enpresa berria martxan jartzea eta bultzatzea, % 60raino; gehieneko muga: 10.000 €.
- Diru-laguntzaren gehieneko muga, proiektuko, 80.000 € izango da.

Emakumeentzako neurri berezia:	Ez.
Eskaera aurkezteko epea:	Uztailaren 10etik, 2014ko irailaren 30eko 13:30ak arte.
Harremanetarako:	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila. • Telefono-zenbakia: 944 068 008. • Helbide elektronikoa: enpresasustapena@bizkaia.net
Web esteka:	http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=8849&idioma=EU&bnetmobile=0&dpto_biz=8&codpath_biz=8 6889 8849

6.2.2.3 Enpresa berritzaile berriak sortzea.

Erakundea: **Bizkaiko Foru Aldundia**

Laguntzaren mota:	Finantzaketa.
Laguntzaren xedea:	Bizkaian enpresa berritzaile berriak sortu eta abian jartzea sustatzea.
Pertsona/Erakunde onuradunak:	Merkataritza-sozietateak eta kooperatibak.
Bete beharreko baldintzak:	<ul style="list-style-type: none"> • Eskabidea aurkezten denean legez eratuta egotea, merkataritzako sozietate moduan edo kooperatiba moduan. • Jarduera 2012ko urtarrilaren 1az gero hasi izana, ekonomia-jardueraren gaineko zergan alta emandako dataren arabera. • Eskabidea aurkezteko datan, lanaldi osoko bi lanpostu sortuta edukitzea. Diru-laguntza ordaintzen denetik urtebeteko epean eutsi beharko zaio baldintza horri. • Egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea • Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

- Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana.
- Diru-laguntzei buruzko Foru Arauko 12. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea. Baldintza hau Ekonomia Sustatzeko Sailaren Erakundearen eta Pertsonen Erregistroko eskabidean aipaturiko aitortpenaren bitartez egiaztatuko da.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:	<i>Ikusi hurrengo taula.</i>
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa berria eratzea: prima bat jasotzea izango da. Eskudirutan ordaindutako kapital sozialaren % 30erainoko diru-laguntzak emango dira, eta gehieneko muga enpresako 20.000 eurokoa izango da. • Marketin-plana: % 60rainoko diru-laguntza, eta gehieneko muga 10.000 eurokoa izango da. • Hiru kontzeptu hauek eragindako gastu hauetarako %60raionoko diru-laguntzak emango dira, eta gehieneko muga 25.000 eurokoa izango da: <ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresa martxan jartzeko gastuak eta abiarazteko kanpainaren gastuak. Gehienez, 15.000 €. 2. Negoziorako lokala alokatzeko gastuak. Gehienez, 15.000 €. 3. Jabetza intelektualaren eta/edo industrialaren babes. Gehienez, 15.000 €. • Enpresa martxan jartzeko gastuak eta abiarazteko kanpainaren gastuak. Gehieneko muga, 25.000 €. • Bi kontzeptu hauek eragindako gastu hauetarako, % 60rainoko diru-laguntzak emango dira, eta gehieneko muga 40.000 eurokoa izango da: <ol style="list-style-type: none"> 1. Doktore eta/edo teknologo bat kontratatzea. 2. Nazioartean negozioa garatzeko pertsona bat kontratatzea.
Emakumeentzako neurri berezia:	Talde sustatzailearen gehiengoa emakumeek edo 30 urtetik beherako gazteek osatzen badute, 10 puntu gehigarri lortu ahal izango dira proiektuaren balorazioan.

Eskaera aurkezteko epea: 2014ko apirilaren 1etik ekainaren 30a arte, aurkezpen-bidea alde batera utzita.

Harremanetarako:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila.
- Telefono-zenbakia: 944 068 008.
- Helbide elektronikoa: enpresasustapena@bizkaia.net

Web esteka: http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6892&idioma=EU&bnetmobile=1&dpto_biz=8&codpacth_biz=8|6889|6892

6.2.2.4 Ekintzailtza eta berrikuntza soziala. 2014.

Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.

Laguntzaren mota: Finantzaketa.

Laguntzaren xedea:

- PROIEKTU SOZIAL BERRITZAILEEN GARAPENEAN (1. arloa): enpresen proiektu berriak edo entitate sozial berritzaileak abian jartzen laguntzea.
- ENPRESA EDO ENTIAATE SOZIAL BERRITZAILEAK (2. arloa): Bizkaian enpresa berriak edo entitate sozial berritzaileak sortzen sustatzea.

Pertsona/Erakunde onuradunak:

- **PROIEKTU SOZIAL BERRITZAILEEN GARAPENEAN (1. arloa):**
